

Gure organu jotzailleak

Euskalerrian, eta beste edonun, abesti zaletasunari, musika eder eta gozoaren bitartez eutsi eragin dauksenak, eleizetako jotzailleak izan dira.

Geiago esan bear da: eutsi bakarrik ez. Eurei esker sortuten ziran errietako abeslari taldeak.

Erririk txikienetan be koru eta orfeoionak ezagutu izan doguz eta organu eder eta andiak erosi ta eukiten arduratzten ziranak.

Gure errietako kondaira irakurten danean, sarri billatzen da, edo erraz konturatu, orretan gure zarrak euki ebelazerbait. Duintasun arrua esango neuke nik, pekatu bagako argalkeri bat. Koru ederrak, toki lez, eta kóru bete-beteak abeslari lez. Eta gaur baiño funtsiño luzeagoak eta bespera jatorragoak egin eta esan eta abestuten ziran lez, orgeratzen zan organuarentzat eta organu jotzailleentzat zeregin berezi bat.

Garbizu musikalariaik esaten daki gaur ez dagola len aiña eta lengo maillako organu jotzailerik, besperetako ordurik eleizetan egiten ez dalako.

Gaur erriari etenbako ekiña emoten jago abesti errikoien bitartezko agerpen eta parte-artze bidez.

Len, oikeriaren indarrez abadeei igarten ez jakoen otoitzagazko batasuna, organuak ederkatu edo itxuratu bear izaten eban.

Organu jotzailleak ez ziran eleiz dirutik bakarrik bizi. Erriak, erriko diruagaz, erriaren borondate eta ondo ikusiareren agerpena emoteko oitura eukan. Eta iñoiz eleiz gizonak eta erri-gizonak, udal gizonak, bateko ta besteko arduradunak, organu jotzaillea bitarteko zala eztabaidetan ibiltzen ziran.

Erri askotan, organu jotzailleak Udaleko alogerdunen artean sartzen ziran. Askotan itxura zaintzearren bakarrik, aloger «simboliku» bategaz, baiña testigantza lez emonda, erriaren kezka eta ardura bat beteten ebelako emonda.

Gure errietan, organu jotzaille asko, eskola maixuak izan ziran. Eskola maixuak batetik, irakurri eta idazten erakusteko aiña, baiña euren zeregin berezian, organu jotzen, gaitasun andiko maixuak.

Duintasun ori agertu bear izaten eben, izentatze edo aukeratze aurretik. Orretarako leiaketak egiten ziralako. Orretan Arantzazuko fraileak zer ikusi andia euki eben orrelako aukeratzetan, eurak etorten ziralako sarri epaikari (juez) lez, eta orretan zorrotz eta jakintsuen entzutea eukelako.

Nire errian beintzat, Ondarroan, ala egiten zan, jotzaillea aldatu bear zan baikoitzean. Arantzazutik etorten zan, itzal andiz, sasoiaren entzutetsu zanen bat.

Eta ez ori bakarrik.

Organu egille onak be egon ziran fraileen artean. Ondarroa'n orain dagon or-

ganua Paris'tik ekarritako Cavaillé-Coll ba da be, bere aurretik euki genduna Manuel Joakin Unzeta fraile legoak egiña zan. Fraile onek egiñak ziran baita Elgoibar, Orio, Getari, Zarautz'eko klaratarren eleizakoa eta abar.

Aurten, azken Maiatzean, Begoña'ko Andra Mari eleizan, iru organu jotzaille omenaldia egin zan iru bariku edo ostiraletan, ortarako gaurko jotzailerik entzutetsuenak bertara batuta, lengo organu jotzaille jatorren omenez.

Eta ain zuzen, gogoratu eta omen-duak izan ziran irutik bi, Ondarroa'ko eleizan organu jotzaille izan ziran: Klemente Ugarteburu eta Eduardo Gorosarri jaunak.

Gaiñera, goian esana gertatu zan Ugarteburu orregaz: erriagaz eztabaideten ibili zan, edo ta erri-gizonak eta eleiz-gizonak alkarren arteko eztabaidetan ipini, bera, irabazten ebanagaz, ezin bizi eikeala-ta, zeñek alogera geituko.

Eleiza pobrea zala eta erria premiñatsuago, zeñek konpondu organu jotzaillearen pleita?

Azkenean, organu jotzailleak, egaz egin bear, negar ixilla eragiten daben gose kantak iruditzen.

Edozetara be, gure estutasunen barruan, musikarako maixu onek eukiten alegintzen ziran gure zarrak, eta ba dogu gure errian, gaur be, musika eskola zar on baten urratsa.

Augustin ZUBIKARAI